



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA (ESEP) 2020-2023

2019ko azaroaren 13an, zirriborroa aurkeztuta:

- Gizarte Ongizate Batzordean
 - Euskara mahaian



AURKIBIDEA

1. SARRERA	2
2. DATU SOZIOLOGIKOAK	3
3. ESEP	10
4. ESEP PLAN ESTRATEGIKOA 2015-2019 BALORAZIOA	12
5. ESEP PLAN ESTRATEGIKOA 2020-2023	13

ERANSKINAK

I. ERANSKINA: Adin talde berekoen arteko erabilera. Azkoitia. 2018.	18
II. ERANSKINA: ESEPen oinarri teorikoak.	19
III. ERANSKINA: ESEP plan estrategikoa 2015-2018 ekintzen betetze-maila.	21
IV. ERANSKINA: ESEP plan estrategikoa 2020-2023ri ekarpenak egiteko orria.	24



1. SARRERA

Gernikako Estatutuaren arabera euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza denez, Euskal Autonomia Erkidegoan (aurrerantzean, EAE) gaztelaniarekin batera hizkuntza ofiziala da eta bertako herritarrek hizkuntza biak ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea dute. Horregatik, udalek hizkuntza bien erabilera bermatuko dute, ofizialtasuna erregulatuz eta ezagutza ziurtatzeko neurriak eta baliabideak ezarriz, hizkuntza dela eta, inor gutzietsi gabe.

Estatutuan jasotakoa garatzeko Euskararen Erabilera Normalizatzeko 10/1982 Legea onartu zen. Lege horrek herritarrei hizkuntza eskubideak aitortzen dizkie eta hizkuntza normalkuntza lortzeko udalen betebeharrak ezartzen ditu.

2/2016 Tokiko Legeak dio euskara Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofiziala dela EAEn eta hortaz, bertako udaleetan ere bai. Hori dela eta, euskararen erabilera sustatzeko, planifikatzeko eta dinamizatzeko eskumenak aitortzen dizkie udal barruan normalizazioa bultzatzeko eta udalerrian erabilera soziala sustatzeko eta, aukera ematen die bitartekoak (arauemaileak eta ekonomikoak barne) jartzeko eta lankidetzak formulak bilatzeko beste erakundeekin.

Eusko Jaurlaritzak 1982an eratu zuen Euskararen Aholku Batzordea 1996an erabarritu zuen eta eskatu zion ordu arte bideratutako hizkuntza politiken eraginkortasuna ebaluatzeko. Baita euskararen normalizazioarekin jarraitzeko plan estrategikoa proposatzea ere. Horrela sortu zen Eusko Legebiltzarrak 1999ko abenduaren 10ean onartu zuen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (aurrerantzean, EBPN). Plan horren helburu nagusia zen euskaraz bizi nahi zuten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar ziren hizkuntza politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea.

Euskararen Aholku Batzordeak 2008-2009an Euskara 21 gogoeta-prozesua egin zuen. Prozesuaren ondorio nagusia izan zen EBPN berri behar zela, onartu zenetik hainbat esparrutan eman ziren aldaketara egokitzeko. Prozesu horretako emaitzak, EBPN eta 2011ko euskararen egoerari eta bilakaerari buruzko adierazleen txostenean oinarrituta, Eusko Jaurlaritzak plan berria diseinatu zuen Euskararen Aholku Batzordearekin: Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (aurrerantzean, ESEP).

ESEP Eusko Legebiltzarrak onartu zuen 2013ko irailaren 11n eta pentsatuta dago 2023 arte garatuko den hizkuntza politika gidatzeko. Helburu nagusia da euskararen erabilera handitzea.

Udalan indarrean dagoen ESEP plan estrategikoa 2019ko abenduaren 31n bukatuko da. Berria egin aurretik, 2015etik burutu denak eman dituenak ebaluatu behar dira, jakiteko norabidea egokia den ala aldatu beharra dagoen emaitzak hobetzeko.



2. DATU SOZIOLOGIKOAK

Euskararen normalizazioan emaitzak neurtzeko erabiltzen diren adierazle nagusiak euskararen ezagutza eta erabilera dira. Adierazle horiek aukera ematen dute ezagutzeko une jakin bateko egoera edota denboran izandako bilakaera eta Euskal Herriko informazioa ez ezik, herriz herrikoa ere ematen dute.

2.1. Ezagutza


Ezagutza datuak 10 urtez behin egiten den Biztanleria eta Etxebizitza Zentsutik eta urtero urtarrilaren 1ean berrikusten den Biztanleen Udal-Erroldatik lortzen dira. EAEn zentsuan euskara mailari buruzko datuak 1981etik jasotzen dira eta ezer ez, nekez eta ongi erantzunen bidez ateratzen dira. Erantzun horiek galdesortako honako galderei dagokie: ulertzen duzu?, hitz egiten duzu?, irakurtzen duzu? eta idazten duzu?. Hitzunek euskaraz hitz egiteko duten erraztasunaren arabera 3 multzotan banatzen dira:

Euskaldunak: euskaraz ondo ulertu eta hitz egiten dutenak.

Ia euskaldunak: euskaraz kostata hitz egin edo, hitz egin ez arren, ondo ulertu eta irakurtzen dutenak.

Erdaldunak: ez dutenak euskaraz batere hitz egiten, ez ondo ulertzen ezta irakurtzen ere.

◆ Ezagutza, 2016 (%)



Azkoitian 10 biztanleetatik 7k euskaraz daki, 1ek euskara ulertzen du eta 2k ez daki euskaraz. Hortaz, 10 herritarretatik 8k euskara ezagutzen du.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Euskaldunen %82a alfabetatuta dago. Hau da, euskara ondo ulertzen, hitz egiten, irakurtzen eta idazten du. Erdizka alfabetatuko euskaldunak %15a dira eta euskara ondo ulertzen eta hitz egiten dute, baina, zailtasunak dituzte idazteko eta irakurtzeko. Euskaldunen %3a da euskaraz ez dakiena idazten eta irakurtzen.

◆ Ezagutza, 1986-2016 (%)

	1986	1996	2006	2016
Euskaldunak	%76,9	%79,7	%77,4	%76,9
la euskaldunak	%9,4	%9,6	%12,6	%9,2
Erdaldunak	%13,7	%10,7	%10,0	%13,9
Hiztunak	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0

Iturria: Datu Soziolinguistikoen bilduma, Azkoitia 1986-2011. Soziolinguistika Klusterra. 2014ko apirila eta EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzen Estatistikak.


Azken 30 urteetan Azkoitian euskararen ezagutza antzekoa da. Zergatia ezagutu nahian, epealdi horretako biztanleriaren jaiolekua aztertu da.

	1986	1996	2006	2016
Araba	29	31	33	38
Bizkaia	87	104	159	188
Gipuzkoa	8.871	8.682	8.783	9.408
Espainia	1.679	1420	1.253	1.141
Atzerria	38	3	375	1.077
Biztanleria	10.704	10.240	10.603	11.852

Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzen Estatistikak.

Herritarren gehiengoa gipuzkoarra da eta azken hamarkadan hazi da atzerritarren kopurua bezalaxe. Espainiarrena, berriz, jaitsi da. Hortaz, biztanleak irabazi arren, azken 30 urteetan hizkuntza-gaitasunean ez da ia alderik izan.

◆ Ezagutza adin-taldeka, 2016 (%)





AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Haurrak dira Azkoitian euskaldunenak, 14 urtetik azpiko herritarren artean euskararen ezagutza unibertsala da, umeen %99,3ak euskaraz baitaki. Beraz, ia ez dago haur eraldun elebakarrik. Gainera, denak daude D ereduan eskolaratuta.

◆ Lehen hizkuntza, 1986-2016 (%)

3 urte bete arte ikasten den hizkuntza da. Lau aukera daude: euskara bakarrik ikasi zutenak, gaztelania bakarrik ikasi zutenak, euskara eta gaztelania ia aldi berean ikasi zutenak eta, euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntzaren bat ikasi zutenak.

	1986	1996	2006	2016
Euskara	%72,0	%72,0	%67,0	%61,0
Gaztelania	%25,0	%24,0	%27,0	%29,0
Biak	%2,0	%3,0	%4,0	%6,0
Beste bat	%1,0	%1,0	%2,0	%4,0
Hiztunak	%100	%100	%100	%100

Iturria: Datu Soziolinguistikoen bilduma, Azkoitia 1986-2011. Soziolinguistika Klusterra. 2014ko apirila eta EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzen Estatistikak.

30 urteetan ia lau herritarretatik hiruren lehen hizkuntza euskara izatetik, birena pasa da izatera eta gaztelania, hizkuntza biak eta beste bat ama hizkuntza duten biztanleen kopurua igo da bikote mistoen eta atzerritarren eraginez. Hortaz, azkoitiarrak umetatik gero eta elebidunagoak dira eta orain dela hiru hamarkada etxean ikasten zena egun gero eta gehiago ikastetxeen bidez irakasten da. Halere, euskara herritarren erdia baino gehiagoren ama hizkuntza da.

◆ Etxeko hizkuntza, 1991-2016 (%)

Etxean gehienetan hitz egiten den hizkuntza da. Lau aukera daude: euskara, gaztelania, biak edo besteren bat. Datua Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistikan lehen aldiz 1991ean jaso zen.

	1991	1996	2006	2016
Euskara	%67,0	%68,0	%57,0	%54,0
Gaztelania	%25,0	%23,0	%29,0	%29,0
Biak	%8,0	%9,0	%14,0	%13,0
Beste bat	%0,0	%0,0	%1,0	%4,0
Hiztunak	%100	%100	%100	%100

Iturria: Datu Soziolinguistikoen bilduma, Azkoitia 1986-2011. Soziolinguistika Klusterra. 2014ko apirila eta EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzen Estatistikak.




AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

1991-1996 epealdiko datuak antzekoak dira. Horiek 2006koekin alderatuz gero, hizkuntza bien eta gaztelaniaren zutabeak igo egin ziren eta lehen aldiz euskara ala gaztelania ez diren beste hizkuntzak jaso ziren. Azken hamarkadako datu esanguratsuena da gaztelania mantendu eta hizkuntza biak zertxobait jaitsi diren bitartean, beste hizkuntza batek gero eta presentzia handiagoa duela herriko etxeetan. Hala ere, Azkoitiko lau etxetatik, bitan baino gehiagotan euskara da bertako hizkuntza.

2.2. Erabilera

Udalak hizkuntzen erabileraren lehen kale-neurketa 2014an egin zuen. Bigarrena, berriz, 2018an. Neurketa biak Soziolinguistika Klusterrak egin zituen maiatzean eta 24 orduko datu-bilketak izan ziren. Kale-neurketan erabiltzen den teknika behaketa zuzena da; hau da, ezer galdetu gabe, neurtzaileek herriko kaleetan topatzen duten pertsonen darabilten hizkuntza jasotzen dute.

♦ Erabilera, 2014-2018 (%)




Azken lau urteotan euskararen erabilerak 7,6ko igoera izan du. Hau da, 2014an %61,3 izatetik %68,9a izatera pasa da 2018an. Hortaz, 2018an Azkoitiko kaleetan entzundako 10 elkarrizketatik ia 7 euskaraz izan dira, 2 baino zertxobait gehiago gaztelaniaz eta 1 baino gutxiago beste hizkuntza batean. Beste hizkuntza batean 2014an 320 herritar aritu ziren. 2018an, berriz, 502. Beraz, zutabe horrek zertxobait gora egin du. Logikoa da gero eta atzerritar gehiago herrian izan, orduan eta beste hizkuntzen presentzia handiagoa delako kaleetan. Halere, 2018an herriko kaleetan 2014an baino euskara gehiago entzun da.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

◆ Erabilera adinaren arabera, 2014-2018 (%)



Adin talde guztietan azken 4 urteotan erabilerak gora egin du. Igoera nabarmena helduena izan da, ia 10 punturekin. Ondoren gazteena 9 puntutik gora. Gero ia 5 punturekin haurrena eta azkenik, adinekoen erabilerak 0,2a egin du gora.

Azkoitian euskaraz gehien hitz egiten dutenak gazteak eta umeak dira. Gutxien, berriz, adinekoak.

Adinaren arabera Euskal Herriko erabilera hurrenkera altuenetik baxuenera da haurrak, gazteak, helduak eta adinekoak.


Azkoitian gazteek (%84,7) aurre hartu die umei (%77,6). Gainera, emaitza horiek hobetu egin dira adin talde berean aritzen direnean (Ikus I. Eranskina). Gazteen arteko erabilera %87,3a baita. Haurrena, aldiz, %84,4a. Beraz, Azkoitian haurrei eta gazteei euren artean naturaltasun osoz irteten zaie euskaraz hitz egitea. Egoera hori herri euskaldunetan baino ez da ematen, normalean umeek eta gazteek euren artean gaztelera hitz egiten dutelako. Gertakari hori hizkuntza-gaitasunari lotuta dator, belaunaldi gazteenak baitira euskaldunenak. Ezagutza adin-taldeka grafikoaren arabera Azkoitian 14 urtetik azpiko herritarren artean euskararen ezagutza %99,3a da. Gazteena, berriz, %85,7a. Beraz, ez da harrizkoa belaunaldi berriak zaharrak baino gehiago euskara erabiltzea.

Beste hizkuntzen erabilerak ere gora egin du helduen adin tartean izan ezik, beste guztietan. Igoera handiena umeen artean emanda, 2018ko datuak 2014ko emaitzekin alderatuz gero, 2 puntu igo da. Aitzitik, gaztelaniaren erabilerak behera egin du adin talde guztietan. Jaitsiera handiena gazteena da, 10 puntutik gorakoa.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA


◆ Erabilera haurren presentziaren arabera, 2014-2018 (%)



Haurrek gehien darabilte euskara eurek bakarrik osatutako taldeetan (%84,4). Beste adin taldeetakoek gehiago hitz egiten dute euskaraz haurrekin daudenean (%71,0), haurrik gabe daudenean baino (%64,9).

2014ko emaitzak 2018an talde guztietan hobetu dira.

◆ Erabilera talde nahastuetan, haurra hitz egin ala ez, 2014-2018 (%)



Talde nahastuetan, umeei (%73,4) beste adin taldeetakoek (%66,2) baino gehiago egiten dute berba euskaraz. Beraz, beste adin taldeetakoak umeei euren artean baino errazago mintzo dira euskaraz, baliteke hori gertatzea haurren artean euskaraz dakitenak helduen eta adinekoen artean baino gehiago izateagatik izatea edota helduen eta adinekoen artean gaztelaniaz hitz egiteko ohiturak duen pisuagatik. Baina, belaunaldi gazteengan euskararen erabilera sustatzeko kontzientzia badute. Horregatik, nagusien artean daudenean, baino gehiagotan egiten die haurrei euskaraz. Umeei euskaraz egin behar zaien arau soziala, Azkoitian ere betetzen da.



Ondorioak

- Biztanleen %76,9ak euskaraz daki.
- Euskaldunen %82a alfabetatuta dago. Euskara ondo ulertzen, hitz egiten, irakurtzen eta idazten du.
- Azken 30 urteotan Azkoitiak biztanleak irabazi arren, euskararen gaitasunari eutsi dio.
- Espainiar jatorriko erdaldunen kopurua jaitsi da, baina, azken hamarkadan atzerritarrena hazi da.
- Haurren artean euskararen ezagutza ia unibertsala da. Gazteen, helduen eta adinekoen artean, berriz, 4 biztanleetatik 3k euskara ezagutzen du.
- Herritarren erdiarena baino gehiagoren lehen hizkuntza euskara den arren, gaztelania, hizkuntza biak eta beste bat gero eta gehiago dira 3 urtetik azpiko haurren ama hizkuntza.
- Herritarren erdiarena baino gehiagoren etxeko hizkuntza euskara bada ere, gaztelania, hizkuntza biak eta beste bat gero eta leku gehiago dute etxeetan.
- 2014tik 2018ra erabilera %7,6a igo da. %61,3tik %68,9ra pasa da.
- 2018an kaleetan entzundako 10 elkarrizketatik ia 7 euskaraz izan dira.
- 2018an 2014an baino herritar gehiago aritu da beste hizkuntza batean kalean.
- Erabilerak gora egin du adin talde guztietan.
- Gazteak eta haurrak dira euskara gehien hitz egiten dutenak eta naturalki irteten zaie.
- Taldean haurrak izateak gazteek, helduek eta adinekoek euskaraz egitea dakar.
- Umeei euskaraz hitz egiteko gizarte-araua Azkoitian ere bada.
- 2014tik 2018ra ezagutza eta erabileraren arteko aldea erdira jaitsi da.

Ezagutza, 2006 (%): % 77,4	Ezagutza, 2016 (%): % 76,9
Erabilera, 2014 (%): % 61,3	Erabilera, 2018 (%): % 68,9
Tartea: 16,1 puntu	Tartea: 8 puntu



3. ESEP

2023 arte EAEn garatuko den hizkuntza politikaren neurrien eta ekintzen proposamena da Eusko Jaurlaritzak udalen esku utzitakoa eta Euskararen Aholku Batzordeko Euskara 21 prozesuko ondorioen aplikazioa (Ikus II. Eranskina).

ESEPen helburu nagusia da euskararen erabilera indartzea, ezagutzaren eta erabileraren arteko aldea gutxitzeko.

Erabileran gehien eragiten duten faktoreak dira: hiztunen kopurua, hizkuntzarekiko atxikimendua, hizkuntzaren balio funtzionalen eta sinbolikoen ustea eta hiztunak hizkuntza hori egiteko duen erraztasuna eta aukerak.

Erabilera bultzatzeko kontuan hartu behar dira hizkuntza eskubideen aitorpena eta babesa; euskararen hiztun-elkartearen dimentsioa eta euskararen eta euskal kulturaren erakargarritasuna. Osagai horiek helburu estrategikoetan garatuko dira.

ESEPe 3 helburu estrategiko ditu: euskararen jabeakuntza, erabilera eta elikadura.

Euskara familian, eskolan eta euskaltegietan ikasten da. Euskara jakitea derrigorrezkoa da erabiltzeko eta euskal produktuak eta zerbitzuak sortzeko edota kontsumitzeko.

Hizkuntza erabiltzen ez bada, galdu egiten da. Horregatik, familiaren eta eskolaren luzapen eta ingurune diren kultura, aisia, kirola, teknologia berriak, lan mundua, administrazioa, merkataritza, hedabideak eta bestelako zerbitzuak (erlijiosoak, esaterako) euskaraz izatea zaindu, babestu eta bultzatu behar da. Bermatu behar da herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak bi hizkuntzetan emateko gaitasuna dagoela. Erronka da ume eta gazteentzako euskara gaztelania bezain erakargarria egitea kultura produktuen kontsumorako, familiako harremanetarako, lagunarterako edo gizarte bizitzarako.

Euskaraz gustura hitz egiteko jarduna aberastu behar da euskarazko edukien eta sortzaileen bidez (hedabideak, argitaletxeak, musikagileak ...). Horretarako euskarazko kalitatezko sorkuntza sustatu behar da eta euskarazko kontsumoa ere bai. Ahalegin berezia egin behar da sareko arlo gehienetako eskaintza euskaraz izateko. Zuzentasuna ez ezik, komunikagarritasuna eta adierazkortasuna ere kontuan hartu behar dira euskaraz komunikatzeko estandarrak malgutuz eta aberastuz, gazteak eta hiztun berriak euskarara erakartzeko. Hiztun berriei lagundu behar zaie gaitasuna sendotzen, euskal kulturaren aberastasunez jabetzen eta harreman sare euskalduna zabaltzen.

Laburtuz, ESEPen egitura honakoa da:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Helburu estrategikoak	Kodeak eta esparruak
<u>Euskararen jabekuntza</u> (Euskara ikastea edota hobetzea da)	1. Familia bidezko transmisioa
	2. Irakaskuntza
	3. Euskalduntze-alfabetatzea
<u>Euskararen erabilera</u> (Euskarazko zerbitzuen eskaintza eskolatik beste eremuetara zabaltzea da, euskaraz hitz egiteko erraztasuna handitzeko)	4. Administrazioa
	5. Gune geografiko euskaldunenak
	6. Arlo sozio-ekonomikoa
	7. Aisia eta kirola
<u>Euskararen elikadura</u> (Euskarazko produktuak eta zerbitzuak kontsumitzea da, euskara eroso eta erraz hitz egiteko)	8. Liburugintza
	9. Kulturgintza
	10. Publizitatea
	11. Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea
	12. Hedabideak
	13. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia

Helburuen garapena laguntzeko ESEPe dituzten helburu bat baino gehiagorengan eragina duten bi zehar-lerro: euskararen aldeko motibazioa eta zabalkundea.

Motibazioa behar-beharrezkoa da euskara ikasi eta erabiltzeko. Ezagutza, erabilera eta motibazioa elkar elikatzen diren osagaiak direlako. Eremu horri dagokio euskara erabiltzeko argudioak ematea, erabileran gertatzen diren egoerak kudeatzeko estrategiak eskaintzea, kudeaketako eredu onak zabaltzea, jakitetik erabilerara pausoa emateko saiok antolatzea edota normalizazioaren lidergoa lantzea. Motibazioa sendotu daiteke sentsibilizazioaren eta prestakuntzaren bidez.

Zabalkundeak eragina du euskararen irudian eta kultur ekoizpenen prestigioan. Horregatik, beharrezkoa da euskararen erakargarritasuna lantzea eta modu egokian proiektatzea, euskarak mundu ugari dituelako bere baitan eta aniztasun hori islatu behar delako. Euskarari prestigioa emateko komeni da kultura eta komunikazioko lorpenak garbi proiektatzea eta euskal gizarteari adieraztea euskara kohesiorako osagai ezinbestekoa dela praktikan eta diskurtso publikoan.

Zehar-lerroen egitura hauxe da:

Zehar-lerroak edo helburu transbertsalak	Kodeak eta esparruak
Euskararen aldeko motibazioa	14. Sentsibilizazioa eta motibazioa
Euskararen zabalkundea	15. Barruko proiektzioa
	16. Kanpoko proiektzioa



4. ESEP PLAN ESTRATEGIKOA 2015-2019 BALORAZIOA


Baloratuko den planak bi zati izan ditu. Lehen Udalbatzak 2014ko abenduaren 15an onartu zuena eta 2015-2018 epealdian gauzatu zena. Bigarrena, berriz, 2019ko maiatzaren 23an onetsitakoa eta 2019an bideratutakoa. Bigarren zatia lehenaren luzapena izan da. Plenoak 2019ko maiatzaren 23an onartu zuen ESEP plan estrategikoa 2015-2018 urtebete luzatzea 2019ko maiatzaren 26ko udal hauteskundeen ondorioz, sortuko zen korporazioak plan berrian agintaldian gauzatu nahi zuen hizkuntza politika jasotzeko denbora izateko. Hortaz, ebaluatuko den plana 2015eko urtarrilaren 1ean abiarazi zen eta 2019ko abenduaren 31n amaituko da. Halere, 2015-2018 epealdia baloratuko da, aurtengo egitasmoa bukatzeke dagoelako.

Plan horretan 12 esparrutan banatutako 18 neurri edota helburu zehatz bideratzea aurreikusi zen 32 ekintza eginez. Jarraian egindakoa laburtuta (Ikus III. Eranskina):

- ◆ Esparruak: 13 jorratu dira. Aurreikusitakoa baino 1 gehiago.
- ◆ Neurriak: 2 ez dira egin, ekintzak atzeratu direlako. Beraz, aurreikusitako 16 helburu zehatz gauzatu dira eta momentuko beharrei erantzuteko planari beste 2 jasotzeke zeudenak gehitu zaizkio. Hortaz, 18 helburu zehatz bideratu dira.

Ekintzak:

Erdizka egindakoak	4
Egindakoak	23
Berriak	2
Atzeratuak	5
GUZTIRA	34



Erdizka egindako jarduerak kanpoko faktoreen ondorioz, epealdiko lehen bi urteetan egin eta gero, utzi dira bertan behera. Beraz, uste dugu zilegi dela gauzatutzat hartzea. Hortaz, erdizka egindako ekintzak gehi egindakoak eta berriak batuz gero, ekintzen betetze-maila %85a da. Hau da, planean aurreikusitako 5 jarduera izan ezik, beste guztiak eta 2 berri egin dira.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Ezaguera eta erabilera datuak erreparatuz gero, esan daiteke gauzatu den plana eraginkorra izan dela, 2014tik 2018ra ezaguera eta erabileraren arteko aldea erdira murriztu delako. Egun tarte hori 8 puntukoa da. Beraz, hori gutxitzea da erronka.

5. ESEP PLAN ESTRATEGIKOA 2020-2023

Udalak euskara bultzatu behar du, Euskal Herriko berezko hizkuntza izanik, gaztelaniarekin batera EAEn hizkuntza ofiziala den arren, berdintasun sozialetik urrun dagoelako.

Euskara sustatzeko lehen plan estrategikoa udalak 2004ko abenduaren 31n onartu zuen 2005-2008 epealdirako. Harrezkero, beste bi onartu ditu. Lehena 2010eko uztailaren 29an 2009-2011 epealdirako eta hiru urte luzatu zena. Bigarrena 2014ko abenduaren 19an 2015-2018rako eta urtebete luzatuz, 2019ko abenduaren 31n bukatuko dena. Hortaz, udalak plan estrategiko berria egin behar du. Plan hori ESEPen arabera zehaztu behar da, Euskararen Aholku Batzordeak horren betetze-maila aurreikusitako unetan aztertu eta ebaluatu behar duelako.

Plangintza berria ez da hutsetik abiatzen. Euskararen egoera ezagutzeko erabiltzen diren adierazle nagusiak ezagutza eta erabilera dira. Beraz, plana zehaztu aurretik ezinbestekoa da datu soziolinguistikoei erreparatzea. Hori 2. atalean egin da.

2/2016 Tokiko Legeak dio udalaren eskumena dela euskararen erabilera sustatzea, planifikatzea eta dinamizatzea.

Hortaz, plan estrategiko berria egiterakoan, udalak Eusko Jaurlaritzak eskainitako ESEP proposamenetik, egungo datu soziolinguistikoei gutxienez eusteko eta ahal dela hobetzeko neurriak eta ekintzak hartuko ditu bere ustez Azkoitian hutsuneak dauden esparruetan euskararen erabilera bizkortzeko, indartzeko, babesteko eta sustatzeko. Euskaraz funtzionatzen duten gunetan, berriz, bertako eragileek eskatu ezean, udala ez da arituko, horietan erabilera bermatuta dagoelakoan.

5.1. Onartzeko prozedura

Plana egiterakoan, parte hartzea bultzatuko eta bermatuko da. Horregatik, proposamena Euskara batzordean eta Euskara mahaian aurkeztea da, aztertze eta ekarpenak egiteko (Ikus IV. Eranskina). Jasotako proposamen guztiak aztertze eta erantzuteko ahalegina egingo da eta normalizazio ikuspegitik eraginkorrak eta egingarriak direnak plangintza berrian txertatuko dira. Ekarpenak egiteko epea proposamena, Euskara batzordean eta Euskara mahaian aurkeztu ondoren, azaroaren 14tik 28ra izango da. Data beretan proposamena erakusgai egongo da nahi duten herritarrek ekarpenak egin ditzaten, euskara saileko helbide honetan: euskara@azkoitia.eus. Hortaz, ondoren aletuko den ESEP plan estrategikoa 2020-2023 behin behineko proposamena da eta udal taldeen, eragileen eta herritarren ekarpenak jasoz osatuko da.



5.2. Malgutasuna ezaugarri

Planak epealdian zehar aukera emango du momentuan sortutako beharrei eta interesei erantzuteko ekintzak jasotzeko. Horixe da gertatu zena aurreko epealdian Euskaraldiarekin edota publizitatea euskaraz egiteko diru-laguntza lerro berriarekin. Plangintzan jasotzeke egon arren, erabilera handitzeko jarduera eraginkorrak zirenez, bideratu ziren hasieran egindako plana aberastuz.

5.3. Eragin esparrua

Planaren eragin esparrua Azkoitiko udalerrria eta udala dira.

5.4. Eragin epea

Plana 2020 urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean eta 2023ko abenduaren 31n amaituko da.

5.5. Helburu nagusia

Euskararen erabilera Azkoitian indartzea.

Ezaguera (2016 %76,9) eta erabileraren (2018 %68,9) artean dagoen 8 puntuko aldea gutxitzea.

5.6. Proposamena:

ESEPen egitura azaltzeko erabilitako koloreen arabera egin da. Kodeduta dago. Lehen zenbakiak esparrua adieraziko du, bigarrenak neurria edo helburu zehatza eta hirugarrenak ekintza. Adibidez, 6.4.2. kodea dagokio 6. esparruari, 4. neurriari eta 2. ekintzari. Kodeak Eusko Jaurlaritzak onartutako ESEPeakoak dira eta jarri dira Azkoitian egingo diren ekintzak ESEPen kokatzeko eta bertan zehaztutako helburuen arabera ebaluatzeko. Horregatik, bideratuko diren jarduerak identifikatzeko Azkoitia lerroa erantsi da.

2. Irakaskuntza	
Neurria	2.4. Euskararen erabilera soziala hezkuntza esparruan aztertu eta bultzatzea.
Ekintza	2.4.4. Irakaskuntzarako ez ezik eskolako ekintza guztietarako euskara harreman hizkuntza gisa bultzatzea (bestelako jardueren egitarau eta programa zehatzen bitartez).
Azkoitia	Gu ere bertsotan programa.
Neurria	2.6. Ikasle etorkinak euskara hurbiltzeko programak diseinatu eta garatzea.
Ekintza	2.6.1. kanpotik etorritako nerabeengan arreta berezia jartzea eta haienzako programa bereziak garatzea.
Azkoitia	Euskarazko errefortzu eskolak - (Mundukoloreak programa)



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

3. Euskalduntze-alfabetatzea	
Neurria	3.8. Gelaz kanpoko egitasmoak sustatzea, erabilera eta praktika uztartuko dituztenak.
Ekintza	3.8.2. Mintzapraktika egitasmoak (Mintzalagun, Berbalagun, Gurasolagun) zabaltzea.
Azkoitia	Mintzalagun egitasmoa.

4. Administrazioa	
Udalan indarrean dago 2018ko abenduaren 27an onartutako Azkoitiko Udaleko Euskararen Erabilera Normalizatzeke Plana VI. plangintzaldirako (2018-2022). Esparruari dagozkion neurriak bertan jaso ziren.	

6. Arlo sozio-ekonomikoa	
Neurria	6.4. Enpresen jardunean hizkuntza irizpideak ezartzeko pausoak ematea.
Ekintza	6.4.2. Kanpoko irudian, idatziko zein ahozko komunikazioan eta adierazpen publikoetan euskararen presentzia bermatu eta sustatzea.
Azkoitia	Diru-laguntzak enpresei, merkatariari eta ostalariei kanpoko errotuluak, irudi korporatiboa eta programa informatiboak euskaraz jartzeko eta itzultzea eta zuzentzea lanerako testu motzak eta erabilera handikoak.

9. Kulturgintza	
Neurria	9.1. Euskarazko kulturaren kontsumoa bultzatzea.
Ekintza	9.1.1. Euskarazko kultura ekoizpenak kontsumitzeko pizgarrien sistema eratzea.
Azkoitia	Gaztezulo hilabetekariaren 6 zenbaki zerrenda izendunaren arabera DBH 4. mailan banatzea.
Azkoitia	Diru-laguntza euskara gure etorria egitasmoari.

10. Publizitatea	
Neurria	10.3. Enpresa, merkatari eta elkarteei zuzendutako sentsibilizazio ekintzak martxan jartzea publizitatean eskararen erabilera bultzatzeko.
Ekintza	10.3.2. Toki erakundeek iragarleei euskaraz publizitatea egin dezaten informazioa, erraztasunak eta pizgarriak ematea.
Azkoitia	Diru-laguntzak euskaraz publizitatea egiteagatik.

11. Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea	
Neurria	11.5. Adierazkortsasuna zaindu eta indartzeko neurriak hartzea.
Ekintza	11.5.1. Tokian tokiko euskalkiak zaindu eta euskara batuarekiko zubiak lantzea, euskalkietan bizirik dauden egiturak eta erregistro ezberdinak kontuan hartuz.
Azkoitia	Hitanoaren erabilera bultzatzea.
Azkoitia	Azkoitiko hizkera jaso, ezagutarazi eta hedatzea.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

12. Hedabideak	
Neurria	12.5. Hedabideen ezagutza, hedapen soziala eta erakargarritasuna bultzatzea.
Ekintza	12.5.3. Hedabideen arteko elkarlan egitasmoak bultzatzea, horien bideragarritasuna indartzeko eta gizarte eragina handitzeari begira.
Azkoitia	UKT, Urola Komunikazio Taldeari laguntza <ul style="list-style-type: none">• Karkara• Baleike• Uztarria• Maxixatzen• Hitza• Erlo Telebista

13. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak	
Neurria	13.3. Euskarazko tresnak sortu eta sustatzea.
Ekintza	13.3.1. Euskarazko tresnak sortzen direla bermatu eta bultzatzea.
Azkoitia	Diru-laguntzak euskarazko webguneak sortzeko.

14. Sentsibilizazioa eta motibazioa	
Neurria	14.1. Euskara balio positiboekin eta modernitatearekin lotzeko ekimenak garatzea.
Ekintza	14.1.4. Motibazioaren alderdi guztiak lantzea tailerren edo mintegien bidez: motibazio praktikoa, motibazio sinbolikoa eta motibazio kulturala.
Azkoitia	Soziolinguistikoki herritarrak jaztea.
Ekintza	14.1.7. Euskararen Nazioarteko egunaren ospakizunak elkarlanean antolatzea.
Azkoitia	Euskara eguna antolatzea.
Neurria	14.4. Euskalduntze-alfabetatzea
Ekintza	14.4.1. Euskara ikasteko sentsibilizazio estrategiak diseinatu eta garatzea.
Azkoitia	Euskara ikasi ala maila hobetzeko herritarrei informazioa eskaintzea.
Azkoitia	Diru-laguntzak euskara ikasi ala maila hobetzeko.
Azkoitia	Diru-laguntzak UEU, EHU-UPV eta HIK HASIren uda ikastaroak egiteko.
Ekintza	14.4.2. Euskara eta elkarbizitza lotuko dituzten mezuak eta ekimenak sustatzea.
Azkoitia	AEK Korrika diruz eta azpiegituraz babestea.
Neurria	14.6. Arlo sozioekonomikoa
Ekintza	14.6.1. Enpresarekin eta enpresarien elkartarekin elkarriketak egitea, euskararen erabilera plana gauzatzeko jarraitu beharreko pausuak zein diren azaltzeko, nola parte hartu, laguntza teknikorako zein aukera dauden, etab.
Azkoitia	Diru-laguntzak euskara planak Azkoitiko enpresetan sustatzeko.
Azkoitia	Enpresetan euskararen erabilera sustatzea.




AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

15. Barruko proiektzioa	
Neurria	15.1. Euskararen irudi positiboa indartzea.
Ekintza	15.1.2. Euskararen ezagutza eta erabilerrari lotutako balio erantsiak hedatzea.
Azkoitia	Euskaraldia.

17. Bestelakoak	
Neurria	17.1. ESEPen kokatzen ez diren bestelako gastu orokorrak, diru-laguntzak eta egitasmoak.
Ekintza	17.1.1. ESEPen kokatzen ez diren ikerketak egitea hizkuntza diagnostikoari, planifikazioari eta abarri buruz.
Azkoitia	2022an euskararen kale-neurketa egitea.

I. ERANSKINA: Adin talde berekoen arteko erabilera. Azkoitia, 2018.





II. ERANSKINA: ESEPen oinarri teorikoak.

Indarrean dagoen hizkuntza politikaren gidalerroak Euskararen Aholku Batzordeak 2008-2009 epealdian egindako Euskara 21 hausnarketa prozesuko ondorio nagusiak dira eta honako 14 lehentasunezko ildoetan laburtu ziren:

1. Euskararen ezagupena eta erabilera belaunaldi berrietan bermatzea.
2. Euskara ohiko hizkuntza izango duten arnagune eta funtzioak zaindu, indartu eta hedatzea, euskararen belaunetara belauneko transmisioa bermatzeko eta erreferentzialtasun soziala indartzeko. Azken batean, helburua ez baita euskararen ezagutza zabaltzea, besterik gabe, baizik eta euskal hitzunik sortzea.
3. Familia-transmisioa bermatzea, oso bereziki 25 urte barru izango diren 30 urtez azpiko gazte elebidunek euskara ere izan dezaten etxeko hizkuntza. Hauxe dugu etorkizunaren gako nagusia.
4. Euskal hiztunen erkidegoa trinkotzea, euskararen erabilerarako sare operatibo presentzialak zein birtualak hedatuz eta indartuz.
5. Hiri handietan euskara erabiltzeko aukerak areagotzea, familia euskaldunei, gazteei eta haurrei lehentasuna emanez.
6. Elebitasun pasiboa helduen munduan –eta gutxieneko helburutzat– areagotzea eta prestigiatzea.
7. Euskarazko kultura kontsumoa indartzea, euskal kultura industria, ekoizle eta sortzaileekiko ikuspegi askatzaile batetik.
8. Euskara eta haren munduak etorkinengana hurbiltzea, hauen integrazio zabala eta aberasgarria ahalbidetzeko eta euskararen erabilera-eremu demografikoki dinamikoetara hurbiltzeko xedez.
9. Euskaraz komunikatzeko estandarrak malgutzea eta aberastea, hiztun berrien adierazkortasunaren mesedetan. Zuzentasunaren irizpide bakarretik komunikagarritasunarenera eta adierazkortasunarenera igarotzea.
10. Hizkuntza eskubideak eremu publikoan aitortzeko ez ezik errespetatzeko bidean, euskara erabiltzeko aukerak bermatzea.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

11. Euskararen erakargarritasuna lantzea eta era egokian proiektatzea: euskarak mundu ugari ditu bere baitan, eta euskarara datozenen munduentzako tokirik ere badu bere barnean. Proiektatzen dugun baino anizkoitzagoa da euskararen unibertsoa, eta are anizkoitzagoa egin beharra dugu, gizartearen pare anizkoitza izatera iritsiko bada.

12. Euskararen irudiari prestigioa ematea, kultura eta komunikazioaren alorreko lorpenak garbi proiektatuz, batetik, eta, bestetik, euskal gizartearen kohesiorako osagai ezinbestekoa dela praktikan eta diskurtso publikoan adieraziz.

13. Hizkuntzaren teknologiak (informazio eta komunikazioaren teknologiak euskararen garapenerako baliatzea), sarerako euskarazko edukiak sortzea eta komunikaziorako sare birtualak era egokian baliatzea, euskararen normalkuntza eta erabilera aukeren mesedetan. Izan ere, euskarak informazio eta komunikazioaren teknologiez baliatu behar ditu, horixe baitu ezinbesteko baldintza hizkuntza guztiz garatua izatera iristeko.

14. Hizkuntza politikaren inguruko akordiorik zabalena etengabe elikatu eta sendotzea, euskararen biziberritzea eta kohesio soziala estu lotuko dituen itun berritu baten bila.



III. ERANSKINA: ESEP plan estrategikoa 2015-2018 ekintzen betetze-maila.

Udalak ESEPeke ekintzen izenak ez zituen bere horretan hartu, indarrean zeuden jardueretara, egitasmoetara eta proiektuetara moldatu zituen. Horregatik, ekintzak zerrendetan jaso dira Azkoitian ezagutzen diren izenarengatik.

Kakotx artean ESEPeke darabiltzan zenbakiak esparrua, neurria eta ekintza adierazteko.

Egindakoak:

- Gu ere bertsotan programa (2.4.4).
- Mundukoloreak programa (2.6.1).
- Mintzalagun egitasmoa (3.8.2).
- Anbulatorioan neurriak bultzatzea euskararen erabilera areagotzeko (4.5.1).
- Komisarian neurriak bultzatzea euskararen erabilera areagotzeko (4.5.2).
- Errotuluak, irudi korporatiboa eta programa informatikoak euskaraz jartzeko diru-laguntzak (6.4.2).
- Kirol taldeek herritarrei bidaltzen dizkieten agiriak itzuli edota zuzentzea (7.8.3).
- Liburutegian euskarazko liburuak erosteko irizpideak zehaztea (8.1.4).
- Gaztezulo hilabetekaria DBHko 4. mailan banatzea 6 hilabetetan (9.1.1).

2016-2017 ikasturtean Euskara mahaian adostu zen hilabetekaria bakarrik jaso nahi zutenei zerrenda izendunaren arabera banatzea, gehiengoak zabaltzeke aldizkaria botatzen zuelako.

- Tabernetan euskal musika jartzea sustatzea, adibidez, euskal musikaren eguna antolatuz, tabernarien elkartearekin eta musika bandako kontzertuetan euskal musika eta kantuak sustatzea (9.1.1).
- Erlo telebista eta Urola Kostako Hitza egunkariari diru-laguntzak ematea (12.2.5).
- Maxixatzen herri komunikabidea, herritik eta herritarrek sortua, egitea udalaren babesarekin: atari digitala eta paperezko euskarria (12.5.3).



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- Webguneak euskaraz sortzeko diru-laguntzak ematea (13.3.1).
- Soziolinguistikoki herritarrek jantzi (14.1.4).
- Euskararen Nazioarteko egunaren ospakizunak elkarlanean antolatzea (14.1.7).
- Euskara ikasi ala maila hobetzeko informazio orokorra eskaini herritarrei (14.4.1).
- Euskara ikasi ala maila hobetzeko diru-laguntzak eman herritarrei betebeharrak batzuk betetzearen truke (14.4.1).
- UEU, EHU-UPV eta HIK HASI uda ikastaroak egiteagatik herritarrei diru-laguntzak ematea (14.4.1).
- AEK korrika diruz eta azpiegituraz babestea (14.4.2).
- Lan munduan euskararen erabilera sustatzea (14.6.1).
- Euskarazko funtzionamendua bermatu aisialdi eta kultur taldeetan (14.7.1).
- Euskarazko funtzionamendua bermatu kirol taldeetan (14.7.4).
- 2018an euskararen kale-neurketa egitea (17.1.3).

Berriak (Planean jasotzeke zeudenak momentuko beharrei erantzuteko egindakoak):

- Euskaraz publizitatea egiteagatik diru-laguntzak (10.3.2).
- Euskaraldia (15.1.2)

Erdizka egindakoak (Kanpoko faktoreen ondorioz, epealdi osoan egiterik izan ez direnak):

- Irria aldizkariaren alea banatzea anbulatorioko pediatria sailean, Abarketatxo ludotekan, Bizkargi musika eta dantza eskolan, AEK euskaltegian, Floreaga Salertar ikastetxean HHko 3 urteko gelatik LHko 3. maila arte eta bi ale aipatutako zikloetan Xabier Munibe ikastolan (9.1.1).

Jasotzaileekin balorazioa egin eta gero, erabaki zen 2016ko urtarrileko alea banatuko zen azkena izatea, aldizkaria irakurketa txokoko beste ipuin bat baino ez zelako eta lantzen zituen edukiei ateratzea zegoen zuku ia inork ez ziolako ateratzen denbora ezarengatik.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- Euskara harrera ikastaroak atzerritarrentzat (14.1.2).

Euskara plus programa 2017ko udazkenean bertan behera geratu zen Banaiz Bagara Elkartea bakarrik Kabia Gipuzkoako Foru Aldundiko organismo autonomorako lana egiten hasi zelako, Azkoitian zebiltzan hezitzaileek elkartea utzi zutelako eta elkarteko koordinatzaileak uste zuelako udalarekin hitzartutako ikastaroak emanda zeudelako. Maxixatzen Euskaldunon Elkarteak dinamizazio lanak egin zituen Auzoko proiektua, berriz, teknikari aldaketa ugari eman eta gero, 2015eko abenduan amaitutzat eman zen. Hutsuneaz jabeturik, AEK euskaltegiak 2017-2018 ikasturtetik 180 orduko AISA ikastaroa eskaintzen du. Udalak ikasleei matrikularen %75a itzultzen die baldintza batzuk betetzearen truke.

- Merkataritzan eta ostalaritzan Bai euskarari egitasmoa gauzatu (14.6.3).

2015eko udazkenean udalak abiarazi zuen parte hartze proiektua baloratzeko Bai Euskarari ziurtagiria (aurrerantzean, ziurtagiria) eta merkatariei eta ostalariei eskainitako zerbitzuak. 2016ko martxoaren 17an merkatariekin egindako bileran ondorioztatu zen aipatutako ziurtagiria ez zela beharrezkoa bezero eta merkatarieusaldunen artean euskaraz jarduteko, ezta euskararen erabilera handitzeko ere, merkataritza eta ostalaritza Azkoitian euskaraz funtzionatzen zuelako. Horregatik, udalak ekintza bertan behera utzi zuen 2016an.

- Gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz gainditzen dutenei diploma banaketa (14.4.5).

2017an aztertzaileen grebaren ondorioz, autoeskolak eskatuta ekintza egitea utzi zen.

Atzeratutakoak:



- Hitanoaren erabilera bultzatzeko ikastaroak eskaini (11.5.1).
- Azkoitiko lexikoa jaso, ezagutarazi eta hedatzea (11.5.1).
- Udalarekin harremanak gazteleraz nahi duten herritarren udal errolda egitea (14.5.2).
- Trebatzailea hartu udal espedienteen kalitatea hobetu, estandarizatu eta langileak formatzeko (17.1.1).
- Udala UEMAn, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean, sartzea (17.1.2).



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

IV. ERANSKINA:

ESEP plan estrategikoa 2020-2023ri ekarpenak egiteko orria.

PROPOSAMEN EGILEA (izen-abizenak edota erakunde, talde edota elkartearen izena eta solaskidea zehaztu)	
	
	
EKARPENA (kenduko, aldatuko edo gehituko zenukeena eta zergatia)	
BESTELAKOAK (balorazio edo proposamen orokorrak eta bestelako oharrak)	